

BERRIGARA

zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1994, azaroak 11

Iban Rodriguez Jaramako Errege



egizabal





GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGA

San Juan Erreka. Elgetara bit
Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxe: (943) 76 5

ROTALE JAUREGIA
70 Bergara
oa eta Faxe: 76 03 97

gitaratzailea:
IDUN Elkarte.
sterreka, 18 Bergara.
oa eta Faxe: 76 08 19

zendaria:
ka Elorza
edakzioa:
ko Azkarate
ardo Mendibil
el Elkoroberezibar

ketazioa:
ko Azkarate
ardo Mendibil

blizitatea:
ko Azkarate
pidetzak:
ka Elorza

ntuen zuzenketak:
apan Plazaola
ipi Laskurain
ea Alzela
ko Labaien

edakzio kontseilua:
uel Angel Elkoroberezibar
apan Plazaola
ko Labaien

mikiak:
or Rodriguez
ka Ortega & Jon Alvarez
e Martin Ezenarro
an Ezenarro

naketa:
intxangorri taldea

rada:
00 ale.
rimategia:
tu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

pyright:
BERRIGARA
ge gordailua:
50/91
IN:
0-6599

BERRIGARAK ez du bere gain
izen aldizkarian adierazitako
inen eta iritzien erantzunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Bipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Aurlaritzaren Kultura sailaren
laguntza jaso du

Z E R B E R I D A ?

AMAIA MARCO

Bergarako Orfeoiko presidentea

- Zelan sortu zen
Berliozen "Te Deum"
lana abesteko aukera?

- Rene Zugarramurdi
Hendaiaiko Orkestako zu-
zendaria harremanetan
jarri zen Arrasateko Goi-
kobalu abesbatzarekin
eta nola ba oraindik jen-
de gehiago behar zute-
nez, Eskoriatzako Goro-
sari abesbatza, Zumarra-
gako Goiargi eta Bergara-
ko Orfeoari parte hartze-
ko aukera eskeini zigu-
ten. Musika sakroa dela-
ko lan bat da eta, guztira,
225 kantari eta Hendaia-
ko Orkestako 120 musi-
kari arituko gara.

- Eta estreinua Ber-
garan...

- Bai, lehendabiziko
emanaldia abenduaren
19an Bergaran, San Pe-



dron izango da eta dago-
eneko badakigu Arrasa-
ten (23an), Hendaian
(30ean), Miarritzen (urta-
rrilaren 6an) eta Doniba-
ne Lohitzunen (7an) ere
izango garela. Orainarte
Bergarako Udalak bere
laguntza baieztatu digu
hemengo emanaldirako
baina beste laguntza ba-
tzuren zai gaude.

**"Zerrajerak sentsibilitate haundia izan
du agiriak gordetzerako orduan"**

I T U R R I O N E T I K

Oxirondoko merkatuko arranpala ez da oinezkoentzat zabalduko

Dendari ambulanteek eta baserritarrek azoka berrirako
eskatutako arranpala, karga eta deskarga egiteko
bakarrik erabili ahal izango da aurrerantzean.
Aurreko larunbatean igogailuarekin izandako arazoak
(goizeko 10etan aberia bat izan zuen) eta eskilarak
erabili behar izanagatik jendearen protestak zirela
medio, zabaldu egin behar izan zen arranpala baina
hemendik aurrera jendeak ezin izango du merkatuko
sarrera edo irteera bezala erabili. "Arranpala,
larunbatetan etortzen diren fruta saltzaile eta
ambulanteek karga eta deskarga egiteko eraiki da eta
ez oinezkoentzako" adierazi digu alkateak.

E S A N
D U T E


"Emakumeak dira
azken unean pilotan
jokatzeari uko egiten
diotenak, gehienetan
lotsaren erruz".

REYES AZKOITIA
Pelotaria
DEIA IGANDEA

●

"Gaisotasun honekin
elkarbizitzan
daramatzadan
urteetan itxura
askotako gaisoak,
seropositiboak eta
afektatuak topatu
izan ditut. Afektatu
potoiloak eta argalak,
indartsuak eta
makalak, aberatsak
eta pobreak,...;
adjetibo asko eta
ezin kolektibo bat
definitu. HIESA
daukan pertsonaren
estereotipoa buruan
daukaten guztiei
esan nahi nieke ez
dagoela HIESa
daukan pertsona
kalean bereizteko
inolako ezaugarri
berezirik. Ez dezatela
halako beldurrik
izan, norberak
ebitatu baitezake
gaisotasuna,
informatuz eta behar
diren neurriak
hartuz. Ez inori
egotzi
norbanakoaren
erantzunkizuna,
besteei etiketak
jarriz".

LIERNI IRIZAR
Seropositiboa
EGIN


**LOBO**

Ostirala: 22.30.


Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30 eta 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**EL NUEVO KARATE KID**

Igandea: 11.30.

**EL DETECTIVE Y LA MUERTE**

Osteguna 20.00.

Zinea

▼▼ Giza-otsoaren pertsonaia ondo baino hobeto datorkio **Jack Nicholson** aktoreari. *Will Randall* (**Nicholson**) otso batek koska egiten dionetik, bere izaerak bi aurpegi izango ditu, bere inguruko (**Michelle Pfeiffer** tartean) kalterako. **Mike Nichols** (*El graduado*) zuzendari eta **James Spader** edota **Christopher Plummer** errepertoan.

▼▼ *Mr. Miyagi* (**Pat Morita**) karate irakasleak erronka berri bat dauka oraingoan. Bere gurasoen heriotza gertatu zenetik, *Julie Pierce* (**Hilary Swank**) bide okerretik ibili omen da eta barruan duen indarra aprobetxatzen saiatuko dira irakaslea eta sekulako gaitasunak dituen ikaslea. **Christopher Caine** zuzenduta.

▼▼ **Gonzalo Suárez**ren (*Remando al viento, La reina anónima*) azken filma Donostiako Zine Jaialdian aurkeztu zen. Modan jarri diren **Javier Bardem, Maria de Medeiros** eta **Carmelo Gómez** protagonista direla, Europako hiri bateko sasoi ilunei buruzko erreflesioa planteatzen zaigu.

Deiak

▼ **1957**an jaiotako enafaria zaroaren 19an Sirimiri jatetxean Izen-ematea Intxorta tabernan.

▼ **1931**n jaiotako enafaria zaroaren 19an. Meza 12.30etan Goenkalen eta bazkaria Antxonin (izen-ematea bertan).

▼ **Xabier De Zerio**ren eskulturak Beasaingo Kultur Etxean.

▼ **Santi Arrieta**ren eskultura eta keramikak Gasteizeko Lankid. Aurrezkiko erakustokian (Dato, 14).

▼ **Taun-Taunen** "Makinatu" bihar 22.30etan Arrasaten.

▼ **Artisau** Langintzen Feriz igande goizean Gatzagako Frontoian.

Ogia

▼ **Igandea 13:** Ogizun.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 11:** Mozos.
- ▼ **Larunbata 12:** Camacho.
- ▼ **Igandea 13:** Camacho.
- ▼ **Astelehena 14:** Puy.
- ▼ **Asteartea 15:** Guallar.
- ▼ **Asteazkena 16:** Estella/Morales.
- ▼ **Osteguna 17:** Mozos/Azkoaga.

Kizkur**ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

ETXAGI JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, EGUNEROKO MENUA, GOSARIAK, BAZKARIAK...


Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

SURPE**Taberna**Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

HIESaren sentiberatze ihardunaldiak *Datorren astean zehar Kultur Etxean*

"HIESaren Sentiberatze Ihardunaldiak" izango dira datorren astean Bergegaran. Arrasateko HIES Ekimenak (Deba Garaiko HIESaren aurkako Bartzorde Herritarrak) Udalenaren laguntzaz antolatuta, gaisotasun honenganaiko herritarren sentsibilizazioa pizteko hainbat ekitaldi iragarri ditu.

Horrela, astelehenetik aurrera, HIESaren gaiari buruz mundu osoko kartel erakusketa ikusgai izango da Kultur Etxeko erakusaretoan. Asteartean, berriz, bideo emanaldi bat izango da gaia arlo pedagogiko, soziologiko edota prebentiboetik ikutuz. Ikastetxeentzako saioa goizez izango da, 10etatik 12etara eta gainontzekoentzat arratsaldez, 6etatik 8etara. Asteazkenean, 19.30etan *"Las noches salvajes"* filme frantziarra emango da Novedades aretoan eta ostegunean, 7etan Kultur



Ihardunaldietan HIESaren alderdi ezbedinak aztertuko dira.

Etxean *"HIESa, aspektu orokorrak, egungo egoera"* izenburuko hitzaldia

izango da Kultur Etxean.

Jose Ignacio Telleria IHES Ekimeneko partaideak azaldu digunez, *"taldea orain 2 urte sortu zen eta ordutik informazio eta prebentzio mailan lan egin dugu batipat. Orain, ihardunaldi hauekin gure lana Deba Garai osora zabal-*

du nahi dugu, pertsonal eta diru aldetik dauzkagun zailtasunengatik askotan oso zaila egiten baitzaigu. Informazio mailan beste aurre-rapausu bat eman nahi dugu, laguntasuna, autokonfiantza edota maitasunaz berba eginenez. Gaisoek beren bizitza berplanteatu behar izan dute eta hori eztabaidatzea gustatuko litzaiguke".

Deba Garaiaiko egogorari buruz zera esan digu: *"arrisku taldeak deitzen direnen artean esango nuke gaisoak estankatu edo gutxitu egin direla.. Heterosexualek, berriz, ez dute arriskurik ikusi eta gaisoen kopurua gehituz doa pixkanaka-pixkanaka".*

Etorkizunean lanean jarraitzeko asmoa du HIES Ekimenak, *"gure abolkularitza zerbitzu, hitzaldi, mabai-inguru edota sexualitate tailerren bitartez".*

Era berean Jose Ignacio Telleriak dei egiten die kolaboratu nahi duten guztiei 79 26 99 telefonora deitzeko, *"laguntza modu askotara eman daiteke eta".*

**HIESa gai bezala erabiliz,
kartel erakusketa, bideo
emanaldia zinea edota
hitzaldia antolatu dira**

**Zure
konfidantzako
denda**



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Hau dena aldatu nahi nuke

Nora doa gizarte hau?; edo, hobeto esanda, nora goaz gizakiok?

Momentu honetan gizartea da gure bizitza bideratzen duena. "Nolako gizartea, halako bizitza".

Gaur egun gure gizartea hankaz gora dago, ez dut ikusten etorkizunik gizakiagan. Gizarte honetan pertsonak egoistak, egoztristak, antisozialak eta, gehiago esango nuke, antisolidarioak bihurtzen ari gara. Eta guzti honen errua nori bota?

- Agintariei? Eurak direlako gure bizitza nolakoa izan behar den esaten digutenak. Eurak dutelako boterea esateko zer dagoen ondo eta zer gaizki. Legeak egin eta indarrean jartzen dituztelako eta gero lege horiek hausten dituzten lehenengoak eurak direlako.

Irakaskuntzari? Bera izan behar delako belaunaldi berriei gure erruak zeintzuk izan diren edo zeintzuk diren azaldu behar duena, berriro ere gure anai zahar edo gurasoek izan dituzten erruetan jauzi ez gaitzen. Edota irakaskuntza izan behar delako gizartearen gidatzailea eta ez alderantziz, gaur egun gertatzen den moduan.

Aurreko belaunaldiei? Zerbaitengatik borrokatu zutelako eta beraien beharrak beteak zeudenean borroka hori utzi zutelako. Horiek direlako ahotsa altxatzen duten lehenengoak gizarte hau aldatu nahi dugula entzuten dutenean. Noski, ahotsa altxatzen dute ez dutelako nahi euren erosotasuna aldatzea edo arriskuan jartzea.

Guri? Ematen duelako guztiarekin ados gaudela: politika, langabezia, kutsadura, e.a. luze bat. Eta zer egingen dugu? ezer gutxi. Ez gara botoa ematera joaten, ez gara mugidu ere egingen. Gure inguru gertuenetik kanpo geratzen dena, bost axola!!

Nire ustez denak dira gizarte ustel honen errudun. Denon artean lortu dute pertsonak buru makur edukitzea. Gaur egun haiek denak batidora batean sartuz gero ziur nago laranja ur garratz-garratza aterako litzatekeela.

Batek daki nortzuk izan diren gizarte hau, haien beharretara egokitu dutenak eta horrela jarraitzen uzten badiegu, agur benur, ni mundu honetatik banaoa.

Hau dena jasan ezina delako, zuei gazteoi deialdi bat egingen dizuet alsa dezazuela burua eta oihu egin, gizarte honek behar duelako. Irten zaitzete zuen ingurune itxi horretatik, zuen

metro karratu horretatik, eta saiatu zaitzete gizarte hau aldatzen.

A. G. I.

NAN: 15.375.471.

Tiira biraka

JULIAN EZENARRO



◆ **Gabonetako argiak**

Gabonetako argiak San Martin Plazan, Bidekurutzetan, Artekalean, Barrenkalean, Arruriagan eta San Pedro kaleetan jarriko dira aurten. Engantxeak egiteko erreztasunak eman eta eragozpenak barkatzeko eskatu du Udalak.

◆ **Organu Kontzertua**

Donostiako Kontserbatorioak Diputazioaren laguntzaz antolatuta, bihar larunbata, 20.15etan, Juan Luis Atxaga, Karmen Azpeitia, Jose Luis Franzesena eta Miriam Uranga organujoleek kontzertua eskeiniko dute San Pedron, Bach, Duruflé, Widor, Alain eta Garbizuren lanak interpretatuz. Gipuzkoan emango dituzten 3 kontzertuetako bat izango da Bergarakoa.

Igandetik aurrera, Omenaldi Astea Mizpirualdeko bizilagunei

Datorren astean Mizpirualde Egoitzaren omenaldi astea izango da. Astelehenean 16.30etan merienda izango da eta 19.45etan Alai-Taldearen Abesbatzaren emanaldia. Asteartean, 5etan, briska, puntxo, domino eta igel jokuak izango dira eta 19.45etan Musika Eskolako txistularien taldeak kontzertua emango du. Asteazkenean, berriz, 17etan Kutzak antolatutako "Himalaya" diapositiba emanaldia eta 19.45etan Aritzeta abesbatza izango dira. Ostegunean bingoa 5etan, jarraian sari ematea eta 19.45etan Musika Eskolako trikitrixa taldea. Ostiralean 6etan praktiketako ikasleek antolatutako joko egongo da, larunbatean 16.30etan Xamatzek eta



Hainbat ekitaldi antolatu dira, Mizpirualden diren 116 zaharrek ahalik eta alaitsuen igaro dezaten hurrengo astea.

Grupo Extremeñok alaitutako txokolatada eta igandean 11.45etan meza eta ordubatean dantzaldira eta sari banaketa.

Alazne Irazabal Gizar-te Laguntzailearen hitzetan, "zabarrei omenaldi txiki bat egitea nabi du-

gu aste batez Erresiden-tziako giroa pixkat bat alaitzeko. Aukera ezin-hobea da gainera berriko taldeak hona ekartzeko eta zaharrek benetan eskertu egiten dute jendeak egiten duen esfortzu hori".



Hitzarmena

Ostiralean sinatu zuten Udalak eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak Seminarioko Agiri Ondarearen kontserbazio eta difusiorako hitzarmenak. Sinatze ekitaldiko argazkian, ezkerretik eskumara, Jose Maria Aycart EHAeko Gipuzkoako Batzordeko Idazkaria, Juan Ignacio Uria EHAeko Gipuzkoako presidentea eta Victoriano Gallastegi alkatea.

JAIOTAKOAK

Jon Mujika Bikuña
Azaroak 4

HILDAKOAK

Luis Silva Azpillaga
Azaroak, 9, 59 urte

LARRAÑAGA eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak, esnea, lejiak...
Martokua, 32 ☎ 76 45 94

LARREA
TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna
Zubieta, 26 BERGARA

◆ Bernedo-Biasterira mendi irteera

Gorla Alpinok eta Pol-Pol Mendizale Taldeak afizionatu guztientzat Bernedo-Biasterira mendi irteera antolatu dute azaroaren 20rako. Irteera goizeko 7etan Frontoitik egingo da. Izen-ematea Pol-Polen egin daiteke.

◆ Eski eta mendi materialaren merkatura

Pol-Pol Mendizale Taldeak eski eta mendi materialaren merkatu txikia antolatu du. Material biketa azaroaren 14tik 19ra bitartean egingo da aste barruan 7etatik 9etara eta larunbatetan 12etatik ordubietara eta 5etatik 8etara. Azoka azaroaren 21etik 27ra egongo da zabalik goian aipatutako ordutegi berarekin.

◆ Laguntza Geriatriko ikastaroa

Mariaren Lagundiak 25 urtetik gorako emakume langabetuei zuzendutako Laguntza Geriatrikoari buruzko ikastaroa antolatu du. Gutxienez urtebete langabezian egon izana eta 6 hilabeteko lan esperientzia izatea beharrezkoa izango da. Interesatuak azaroaren 15a baino lehen eman beharko dute izena, astelehenetik ostiralera 9etatik ordubatera Mariaren Lagundian.

◆ Jesus Mari Garitano Atxondon garaile

Jesus Mari Garitano bergararrak igandean Atxondon izandako margo erakusketa irabazi zuen udazkenari buruzko koadro inpresionista batekin. Guztira, 51 partaide egon ziren.



Otsailaren lehenengoetarako obrak amaitzea espero da.

Elgetan hotel berria zabalduko da otsailean

San Roken eraikitzen ari dira eta 7 gela bikoitz izango ditu

Elgetako San Roke kalean hotel bat eraikitzen hasi dira azken astetan. Elena Zabala hotel horretako promotoreetako batek adierazi digunez, "Elgetako Udalak 4 hilabeteko epea eman digu obrak amaitzeko eta baliteke, beraz, urtarriaren azkenalderako edota otsailera zabalik izatea".

Hotela San Rokeko 26. zenbakian egingo da. "Bai, etxe zahar bat berritzen ari gara eta lehengo fatxada mantendu egingo da. Hotela 7 gela bikoitzak, 2 jangela (40 bat lagunentzako), egongela eta taberna txiki bat izango ditu" esan digu Elena Zabala eibartarrak. Bere ustetan, turismo mailan gauza asko egin daitezke inguru honetan, "bai, Elgeta ikustera datorren jendeaz gain, tailerretako

bidaiariak eta borrelakoak, eguneroko bezeroak ere jaso ditzakegu. Zergatik Elgetan? Ba lehenbiziko Ermuan edota Eibarren egiten pentsatu genuen baina erreztasun haundienak Elgetan eman zizkiguten. Elgetako Udalak gauza honetan asko dakien jendearekin harremanetan jarri gaitu eta ondorengo katea bera asko poztu zen ideiarekin".

Lurdes Romano Mankomunitateko Turismo arduradunaren hitzetan, "azpiegitura falta dago baina men eta zentzu horretan egiten diren gauza denak ondo etorriko dira". Gaur egun 13 hotel eta hostel daude bailaran (guztira 211 gela eta 383 ohe). Bestalde, berriro nekazal turismo etxe daude, baina Oñatin eta bestea Aretxabaletan.

antzinako gauzak
dekoratzeko ideiak
Rincones

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxe: 76 52 98

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Gazte Asanbladak antolatutako ekitaldiak egun hauetarako

Gaztetxea desalojatu zutenetik urtebete pasatu denean

Datorren asteartean Gaztetxea desalojatu zuteneko lehen urteurrena betetzen dela eta, Bergarako Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi iragarri ditu datozen egunetarako. Bihar, esaterako, bazkari herrikoia izango da herriko plazan 14.30etan; bazkalostean Gaztetxearen inguruko tertulia izango da eta gazte guzti-
ei bertan parte hartzeko gonbidapena luzatzen zaie gaiaren ikuspegi guztiak azertu ahal izateko. Jarrera Ooreretako *Marimba* antzerki taldeak "Ezinezko amodioak" izenburuko lana eskeinitu du, ondoren kalejira eta gaueko 10.30etan, berri-
Daxka, *Izurrai* eta *Su Santidad* taldeen musika kontzertua izango da San Martin plazan.

Astelehenean Gazte Asanbladako kideak herriko ikastetxeetan izango dira Gaztetxearen in-

guruko egungo egoeraren berri emateko eta astearterako greba deialdia luzatuko dute. Ikasleek greba egitea erabakitzen badute, goizean zehar iaz gertatukoaren parodia bat egingo dute eta arratsaldean manifestazio bat egingo da.

Fanzinea kalean

Bestalde, Gazte Asanbladak herriko hainbat kolektibok landutako fanzinea jarriko du salgai eta era berean pegatinak salduko dira, Gazte Asanbladaren egoera ekonomikoa ez baita nahi bezain ona. Beren hitzetan, "oraindik asteartero 7etan UNEDen asanbladak egiten jarraitzen dugu. Momentuan jendea pixkat geldirik dago baina astebukaerako ekitaldiekin mugitzen hasteko itxaropena daukagu. Dagoeneko urtebete da-

ramagu Gaztsetxe barik eta ideia berriak sortzen joan dira denbora honetan, tabernaz aparte, tailerrak eta beste ideia batzuk hobeto lantzea adibidez".

Oraindik ez dute inolako kontakturik izan Udalarekin baina Gazte Asanbladako kideak alkatearekin hitzegiteko prest azaldu dira.

Alkateak berriz zera adierazi digu: "betiko jarrerara bera mantentzen dugu. Gu, printzipioz, planteamendu eta eskaera guztiak aztertzeke borondatea daukagu baina urtebete bonetan ez da inor bona etorri".

Gazte Asanbladakoek asteartero bilerak egiten jarraitzen dute



Urtebete pasatu da Gaztetxea desalojatu zutenetik.



MAPFRE
automobilak

Automobilien Seguritate Kanpaina

- Matrikulen grabaketa kristaletan
- Autoaren segurtasun organoen berrazterketa
- Dohaineko zerbitzua

NOIZ: Azaroaren 14tik 18ra. **NON:** Oxirondo Plazan. **ORDUTEGIA:** 10.00-13.30 / 15.30-19.00

Ekologia

Haritz kanduduna

- Zeintzuk dira haritzaren ezaugarriak?

- Haritza zuhaitz sendoa da eta 40 m.ko altura hartu dezake. Itxura ederrekoa izaten da, irregularrak eta adar sendoak ditu, karabildak. Hostoak handiak dira, erorkorak. Fruituak oso ezagunak dira, ezkurak. Haritz kankodunaren kasuan, ezkurak adarretatik irtetzen diren kerten batzutatik daude zintzilik. Europa eta Asiaren mendebaldean hazten da, batez ere lurralde hezeetan. Euskal Herriko Kantauriar isurialdea adibidez oso aproposa da zuhaitz espezie honetarako. Bere egurra oso preziatua da baina oso poliki hazten denez, baztertu egiten da zuhaitz landaketak egiten direnean. Bestalde, haritz kankodunaz gain beste bi haritz mota dauzkagu inguru hauetan: Haritz Kandugabea (Quercus petraea) eta Ametza (Quercus pyrenaica).

- Non aurkitu ditza-kegu?

- Haritza, harizti deitzen diren basoen oinarriko espeziea da. Hariztiak baso autoktonoen

arteko aberatsenak direla esan daiteke. Baso haue-
tan landare eta animalia dibertsitatea oso handia da eta beraz, haritzaren egurraren balioari, balio ekologiko handia gehitu behar zaio. Honelako basoetan, ehundaka animalia eta landare espezie bizi daitezke aritzen ondolan.

- Zuhaitz mirestua izan ei da hariztia...

- Badirudi haritza zuhaitz sakaratua izan zela



IÑAKI IRIZAR
(biologoa)

Europako herri askotan. Adibidez, Zeus eta Thor jainkoei lotuta azaltzen da mitologian eta Euskal Herriari dagokionez ere, bertako kultura eta sinbolojiari hestuki loturik dago, Gernikako zuhaitzak erakusten digun bezala. Dena den eta egia esateko, haritzenganako

"Administrazioak haritzen landaketa serioak egitea kontutan hartu behar luke"



Haritz Kanduduna (Quercus robur).

errespetu hori aspaldi Xamar galdu genuela onartu beharra dago, errealtateak erakusten digun bezala.

- Zein da gaur egungo egoera?

- Hariztiaren egoera Bergara eta inguruan oso txarra da. Egia esan, hariztia ekosistema bezala desagertu da jadanik hemen, eta Euskal Herri mailan ere antzera gertatzen da. Lehengo basoen oroimen bezala basotxo degradatu batzuk gelditzen zaizkigu, eta ale bakar batzuk han hemenka. Lehengo baso aberatsak belardi eta pinadi bihurtu dira. Askotan pagadia baso galduena dela uste bada ere, hariztia da hemen gehien desagertu den basoa. Harizti txiki baina baliotsuak Etxezarretan, Aranen, Ipintza gainean edo Osintxu inguruan ikusi daitezke oraindik, adibidez.

- Eta etorkizunera begira, zer?

- Beharrezkoa ikusten dut oraindik gelditzen dena, gutxi eta degradatua izan arren, altxor handiena bezala babestu eta berreskuratzea. Horrez gain, administrazioak haritzen landaketa serioak egitea ere kontutan hartu behar luke, hori oso komenigarria baita (baina bertako haritzekin eta ez haritz amerikarrekin, batzutan egin den bezala).

KONTSULTA BERRIA

Cristina Garcíandia Mugica

DERMATOLOGIA, BENERELOGIA, MEDIKU KIRURJIKOA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramon maria Lili, 2. Ate nagusia. ☎ 76 59 39

Lagun Aro Aseguruak Osasun Laguntza

IBAI GRUAK



ZERBITZUA EGUN OSOAN

San Juan, BERGARA.

☎ 908-67 68 21 (mobila)

900-59 59 59 - 40 06 59 (abonatu)



Arrasaten bakarrik sei tona txatarra atera dute errekatik.

Erreka garbitzaileak

Bergarako bost gazte Deba Ibaiaren bazterrak garbitzen dihardute

Eulen enpresa pasa den martxotik Gipuzkoako Oria, Urola eta Deba ibaiaren bazterrak garbitzen ari da. Zortzi lagunetako hiru taldetan banaturik dihardute lanean eta Deba ibaia garbitzen ari den taldean bost bergarar daude. Eurekin izan gara. Plastiko eta zikinkeria artean Arrasateko ibai ertzak garbitzen aurkitu ditugu.

Pasa den martxotik 8 langilez osatutako lan taldea jo ta ke ari da Deba ibaia garbitzen. Goizeko 8etatik eguerdiko 3,30ak arte erreka bazter guztiak

arakatzen dituzte, zikinkeria arrastorik gera ez dadin. Garbiketa Eskoriatzan hasi zuten eta hasiera bateko asmoa datorren abenduaren 31rako erreka Mendaroraino garbi-

tzea bazen, ez da posible izango. Izan ere 8 hila-bete hauetan Eskoriatzatik Arrasaterainoko garbiketa egin ahal izan dute bakarrik. "Gogorrena plastikoa lurretik atera-

tzea da. Ezin dezakegu esan zenbat zabor tona atera dugun, balere Gipuzkoa mailan programak irauten duen bitartean 42 tona zabor jasotzea espero dugu. Hala ere, Arrasaten bakarrik 6 tona txatarra hartu dugu".

Txatarra edozein motakoa izan daiteke: bizikletak, tuboak, motorrak umeen kotxeak. Hasiera batean lana nahiko gogorra egiten zitzaie la aitortu digute, eta ez da harrizkeria, egun osoa erreka eman behar baitute, zikinkeria artean. Baina gaur egun ohituta daude eta ziurtatu digute lana ez dela horren txarra.

Zailtasunik handiena plastikoa batzea bada ere, erreka izaera estuak asko mugatzen du euren eguneroko lana. "Hemen ez dugu tokirik erreturak egiteko, hartu behar ditugu arrama eta zikinkeria guztiak eta alde batetik bestera ibili behar dugu, gauzak erretzeko edo txatarrak ateratzeko leku aproposa aurkitu arte. Horrek asko luzatzen du gure lana".

Lan tresneriari dagokionez, aizkora, motozerra, desbrozadora, sarda, zerra, etab.ak erabiltzen dituzte. Erreka bazterrak garbitzen hasi baino lehen, gazte hauek langabezian zeuden eta lan hau egiteko deitu zieten nahiko harrituta gelditu ziren. "Hasieran



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

AKORT

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA



Deba Garaiko zortzi lagun ari dira joan zen martxotik ibaia garbitzen.

ez genekien zer egin be-
bar genuen. Baina Eu-
len enpresak 15 eguneko
ikastaro bat eman zigun,
gure lana ondo zebazte-
ko. Baina ez zigun asko-
rako balio izan, teoria
asko eta praktika gutxi
eman baitziguten. Lane-
an errekan ikasi dugu".

Deba ibaia Gipuzkoa-
ko beste ibaiekin konpa-
ratuz zikinagoa dela adie-
razi digute. Orian edo
Urolan esate baterako
arrainak daudela diote;
Deba ibaian, berriz, ba-
karrrik arratoiak eta noi-
zean behin lepozuri edo
uroiloren bat agertzen
da. Arrainik ez dute inoiz
ikusi.

**"Errekak Udai
zaborteia dirudi"**

Zortzi hilabete eman
dituzte Eskoriatza eta
Arrasate bitarteko erreka
zattia garbitzen eta eurek
garbitzen dutena jendeak
zikintzen duela adierazi
digute. "Lantegi baten
ondoan lanean gabiltza-
nean bokadiloak bota-
tzen dizkigute, errekek

zaborteia dirudi. Erreka garbitzen
dugu eta oso polita gel-
ditzen da, baina gu pa-
satu ondoren jende as-
kok zaborra botatzen ja-
rraitzen du. Horrela ja-
rraitzen badute, gure la-
na bukatu ondoren ber-
riz hasi beharko dugu".

Errekan lanean dabil-
tzanetik beste ikuspegi
batetik ikusten dutela

**"Erreka garbitzen dugu eta oso
polita geratzen da, baina gu pasatu
ondoren, jende askok zaborra
botatzen jarraitzen du"**

esan digute. "Orain anai
baten moduan ezagu-
tzen dugu. Lehen ez gi-
nen errekan fijatu ere
egiten. Lehen errekan
zaborra ikusten genu-
nean, ez ginen asko fija-
tzen. Baina orain seku-
lako amorrua ematen
digu jendea basura bo-
tatzen ikusteak".

Lan egiteaz gain erre-
kan pasatutako momentu
txarrei etekina ateratzen
diote. Esate baterako
norbait errekarat erortzen
bada, tragoak ordaindu
behar izaten ditu. Gaine-
ra bildu duten txatarra
guztia saldu ondoren, 34
mila pza atera dute eta
horrekin afari bat egiteko
asmoa dute.

24.000 kg zabor

Txatarra batzeak afari
bat egiteko dirua eman
badie, jaso dituzten beste
zikinkeriek ez diete
inongo etekinik eman.
Izan ere basura poltsetan
24.000 kg zabor bildu di-
tuzte eta gauzak erretze-
ko 119 su ezberdin egin
dute; horretaz gain bi
behi hilda, oiloak eta ka-
tuak atera dituzte erreka-
tik. Errekan gehien ikus-
ten den animalia arratoi

YAZKI
UME GAZTE
Neska eta mutil
Irizar, 3 Ibargarai, 8
☎ 76 16 14 ☎ 76 54 73

DENDA BERRIA
DIAMIR

**MENDIRAKO
EKIPAMENDU TEKNIKOA**
**EZ EROSI ITXU-ITXUAN
ION LAZKANOK
AHOLKATUKO ZAITU**
Arruriaga kalea, 8 BERGARA
Tfnoa eta faxa: 76 08 84

da eta langileek esan digutenez, arratoiakin ez dute inongo arazorik izan. *"Gu ikustean ikaratu egiten dira arratoiak, eskerrak ez dakitena guk eurei diegun beldurra"*.

Lehen adierazi dugun bezala Eulen enpresa, Eusko Jaurlearitzaren aginduz egiten ari da erreka garbiketaren proiektua. Orain arte lortutako emaitzak nahiko onak izan dira eta Maria Jose Market, Euleneko biologoak adierazi digunez, *"proiektu honekin, alde batetik Gipuzkoako erreken egoera hobetu nahi dugu. Erreka batzuren egoera, Urola edo Oriarena, esate baterako, ez da horren txarra, baina Debaren egoera nahiko kezkarria da. Izan ere erreken ondoan industria ugari dago eta horrek errekarengan eragina du"*.

Ibaia garbitzeaz gain, proiektu honekin Eulenekoek jendeari errekek garbi izatea zer garrantzitsua den azaldu nahi diote: *"proiektu honekin jendearengan kontzientziazioa lortu nahi dugu. Ikusiko dute ibai bazterrak garbituta eta konturatuko dira zein polita den ibaia eta, horrela ikustean, espero dugu jendeak errekarari errespeto handiagoa izatea eta zaborrak botatzeari uztea"*. Ea horrela den eta jendearen jokabidea aldatzen den.

Banderatxoak errekan zehar

Erreka garbitzaileek danetik ikusteko aukera izan dute hilabete hauetan, kondoiak, motorrak, arratoiak, etab. Baina errekan ikusten duten "espezierik" ugariena "banderatxoak", emakumeek erabiltzen dituzten konpresak dira. *"Egunero milaka ikusten ditugu. Emakumeek komuneko tazatik botatzen dituzte eta gero, Bergaran galdetzen diezu ea nor botatzen duen eta inork ere ez duela botatzen esaten dute. Baina erreka konpresaz leporaino dago"*. Istripu larririk ez dute izan, gehienez puntu batzuk, baina behin istripu larri bat izateko zorian izan ziren. *"Lanean genbiltzan eta lantegi batetik izugarrizko metalezko txapa bota zuten errekarara eta ia jo egin zuen langile bat. Harek jo ezkerro, dagoeneko lur azpian izango litzateke"*. Beste behin, Aramaio errekan lanean zebiltzanean, enpresa batek errekarara gasoleoa isuri zuen dena gasoleoz beteaz. Langileek esan digutenez lana egiteari utzi behar izan zioten, errekan ibili ere ezin zutelako egin. Halere, jendeak lanean ikusten dituen harrera ona izaten dutela esan digute. *"Jendeak errekan ikusten gaitunean, ondo pentsatzen zaiela esaten digute, baina gero, hori ez da isladatzen erreka zaintzeko orduan"*.



EULENen helburuetariko bat jendeak erreka errespetu dezala da.

AGIRREBEÑA

**oinetakoak
arropa denda
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

MAHER

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

iletxo

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

Gutxitu fisikoen **integrazioa Bergaran**


LH IIko 2. kurtsoko ikasleek egindako lana:
Lierni Ariceta, Blanca Cebrián, Sonia Fernández, Eider
Garitano, Nagore Larrañaga, Belen Múgica eta
Maixol Rezola

**Nola moldatuko zinateke
Bergaran gurpildun aulki
batekin?**

**Inoiz pentsatu al duzu zu
izan zaitezkeela
Bergaratik zehar
ibiltzeko gurpildun aulki
bat behar duen pertsona
horietako bat?**

*Galdera hauei erantzun
bat ematea da gai
honen helburua*

Ikasgelan egiten diren ekintzen artean gai batzuk taldeka lantzen ditugu eta orain aurkezten dugun hau horietariko bat da.



AI ENE,
GURPILA
"INTEGRATU"
ZAIT

Helburua izango litzateke Bergaran zehar ibiltzeko gutxitu fisiko batek aurki ditzakeen oztopo eta arazoez konturatu eta jabetzea. Traba hauetako batzuk aipatzekotan honako hauek izan daitezke: lagunekin irtetzerakotan, azokan erosketak

egiterakoan, epaitegira joaterakoan, etab.

Goian bota ditugun galderei erantzun bat ematen saiatuko bagina, helbuua beteko genuke

Gure aldetik erantzun nahi diogu esperientzia konkretu baten egoeran jarri eta

une horretan bizi izan genuen esperientzia adierazi.

Horrela, bada, gorpildun aulkia hartu eta jakineko leku batzuetatik Bergaran zehar bueltatxo batzuk eman genituen. Emaitza argazkietan ikus dezakezue.




HONELA HOBETO

Ondorio Gisa:

Erosotasunez eta erortzeko arriskurik gabe mugitzeko zailtasun batzuk aurkitu ditugu. Zailtasun hauek "hesi arkitektoniko" izenarekin ezagunak direnak, gutxitu fisikoen integrazioa eta beraien moldaketa autonomoari trabak jartzen dizkiote, zeren eta sarritan behar izan baitugu beste pertsona batzuren laguntza azokara, liburutegira eta beste zenbait lekutara sartzeko. Gainera, eraikuntza hauek berriak izanik ezintasun fisikoak dituztenentzat sarrera berezirik ez edukitzea kontsiderazio falta iruditzen zaigu; beraiek ere bergararrak direlako eta bestean eskubide berberak izan beharko lituzketelako.



HAU BAI DELITUA!!



LURREAN JARRITA HOBETO, EZ?


Zer egin dezakegu errekak ahalik eta garbien edukitzeko?



Mari Angeles Aiausti

59 urte, etxekoandrea

Alde batetik, norberak zaindu, errekara zikinkeriarik ez bota, besteek garbitzeko zai egon barik. Eta enpresak kontrolatu zikinkeriak errekara ixuri ez ditzaten.




Imanol Agirre

41 urte, langilea

Hobeto zaindu, zaborrak errekara ez bota eta edukazio gehiago izan.

Lantegiek depuradorak jarri beharko lituzkete eta zikinkeria ixuriko balute isuna jarri.



Marisabel Otaño

23 urte, langabetua

Errekak hobeto zaindu, paper eta zaborrik bota barik. Lantegiek ere kontu haundiagoz jokatu beharko lukete. Hala ere zaila ikusten dut Deba ibaia errekuperatzea.



Saturnino Poza

62 urte, jubilatua

Zaila da, lantegiak kenduko balituzte lanpostuak desagertuko lirateke eta... Hala ere, kanalak egin edota depuradorak jarriko balira, garbiago egongo litzateke.




Mari Martínez

55 urte, etxekoandrea

Zaborra errekara botatzen duenari zigorra jarri beharko litzaioke, edo erreka garbitzera behartu.


Langabetuak errekak garbitzen jartzea neurri ona dela uste dut.



Indalecio Martínez

60 urte, jubilatua

Uste dut norbera kontzientziatu behar dela eta jokaerak aldatu behar ditugula, askotan errekak zakarrontzizat erabiltzen ditugu, eta hori onartezina da.



POL-POL
TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO
TABERNA

☎ 76 01 51

ARREGUI, E.M.



ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73

Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



Bere lekura

Rominger-ek ordubeteen 55 kilometro pasa bete ondoren bat baino gehiago jarri da lortu ezina zirudien 60 kilometroko hesiari begira. Azelakotxea izango litzatekeen ordubeteen zehar minutuero kilometro bat egitea. Esaten den bezala alturan kilometro ta erdi edo bi kilometro irabazi badaitezke, ez da hain urrun geratuko mobiletean ere betetzea kostako litzatekeen neurria.

Baina Rominger-en markak badauzka beste irakukerta batzu. Bikaina dela entzun eta irakurri duzue, neuk ere aitortzen dut, baina ez nau harritu. Nire ustez, bere kalitateari dagokion marka da 55 kilometro eta 291 metroko hau; ez gehiago eta ez gutxiago. Obree 52 kilometro luze egiteko gauza baldin bada eta eta Moser, 43 erterekin, errekor horretatik gertu gelditu bazen, normala iruditzen zait Rominger-en mailako txirringulari batek, dauzkan hanka, bihotz eta prestakuntzarekin, bi kilometro gehiago lortzea.

Eztabaida bat baino gehiago izan dut azken asteotan. Badago Obree eta Moser-ek erabilitako arraultza izeneko posizioarekin segundu asko irabazten direla ziurtatzen duenik. Nik zera defenditu dut ordea: Rominger eta Indurain beste bi horiek baino askoz hobeak direla bizikleta ganean eta posizioarekin irabazi daitekeen segundu kopurua hutsa dela kalitate alde horrekin konparatuta. Orduko errekorra behean zegoen; goi mailako txirringularriek baztertuta zeukaten.

Eta Indurain? Obreek jarritako marka gainditzera joan zen eta kitto. Bere gorputza ez zutela asko behartu uste dut, "Espada" bizikleta propaganda ederra izan zela bere egilearentzat eta 53,040 kilometro gutxi direla naparrarentzat. Rominger-en errekorra gainditzeko gauza den ez dakit. Suizarrak goian, oso goian, laga du. Neuk, orduko errekorra baino nahiago dut bosgarren Tour-a.

Joseba LEZETA



Altxor ezkutua

Titulua irakurtzerakoan norbaitek pentsa dezake datozen lerroak Indiana Jonsekin zerikusi handia izango dutela eta horrela ez bada, ez du hutsik egin. Lerro hauetan abentura mota bat (abentura barnekoa) proposatu nahi dut. Telebistaren munduarekin eta etxeko besaultikit burutu dezakegun abentura.

Besaultikit burutu daitekeen abentura? bai, bai. Literaturan eta zineman azaltzen zaigun heroiak arrisku eta estualdi ugari eta bidean topatzen dituen arerioak gainditu ondoren, bere helburua lortzen du. Gainera, abenturak pertsonaia barrutik indartzen eta aberasten du. Eta definizio hau erabiliz, telebista programazioaren aukeraketa abenturatzat hartuko dugu.

Herioiak, gu geu, gara; daukagun arma telebistaren mandua eta etsaia gaur egungo programazio nazkagarria. Egoera honen errua telebista egiten eta ikusten dutenen artean banaturik dago: lehenengoek edozein saio mota proposatzeagatik eta bigarrenek burua nekatu barik proposamendu higuigarri horiei baietza emateagatik. Honela gau eta egun kalitate gabeko programa eta pertsonaiak agertzen zaizkigu. Azken izurritea "Chiquito de la calzada" umorista negargarriaren eskutik datorkigu.

Beraz, ahaleginak egin behar ditugu hainbeste kaxkarkeria artean benetako altxorra aurkitzen. Eta bada, konkretuki gaue-tan TVEren bigarren katean jatorrizko hizkuntzan eta iragarki-ekin moztu gabeko filme zoragarriak ematen dira. Orain, benetako bi artistei (Jean Renoir eta King Vidor) ongi merezitako omenaldia eskaintzen ari zaie, baina hasieran abisatu dudana bezala ia-ia ezkutuan. Gaueko ordu bata inguruan ematen dituzte, bideoa da gure salbamena. Eta aipaturiko saria? ba, filme hauek ikustearekin pertsona benetan aberasten dela.

Antonio ZABALA



TOSHAIRE

• ILEAPAINDEGI MISTOA •

• ESTILISTA •

Artekale, 29 behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

**PINTXO eta BOKADILOAK
SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92



Irizar, 2

☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Aranzabal

OIHALAK

Zubieta

☎ 76 11 50



Atxaga Bergaran


Ostiralean aurkeztu zen UNEDe **Gerontolojia Psikosozialeko Masterra**. Bertan izan ziren, besteak beste, Fernando Etxebarria Masterreko zuzendaria, Bernardo Atxaga, Antonio Martinez (Instituzioak), Victoriano Gallastegi alkatea, Jesus Aranburu Kultura Diputazioaren zuzendaria eta Ana Oiarzabal (Argazkian ezkerretik eskumara). Hemendik ekainera bitartean, guztira 48 ikasle izango dira pertsona zaharren atentzioan eta tratamenduan hezitzeko antolatutako masterrean. Ostiralean bertan Bernardo Atxagak

Ikusmin handia sortarazi zuen Bernardo Atxagak Gerontologia Psikosozialeko Masterraren aurkezpen ekitaldian UNEDen eman zuen berriketaldiak. Bertan, agintari ugari bildu ziren.

"Literatura eta zahartzaroa" izenburuko testua irakurri zuen. Atxagak zahartzaroren mehatxuak diren bakardadea, osasun eta diru faltari buruzko gogoetak egin zituen.

"Ordago haundira"

Jose Maria Unamuno eta Maximo Rubio "Raton"ek irabazi zuten **Arranoko Mus Txapelketa**. Guztira, 12 bikotek parte hartu zuten eta bigarren postuan **Patxi Puertas** eta **Gorka Larrañagak** osatutako bikotea sailkatu zen. Nagusiek betetako askotan abantaila bat izaten dela erakutsi zuten... Bestalde, **Egineko Mus Txapelketarako** sailkatze partidak jokatu ziren larunbatean. 14 bikote aurkeztu ziren eta astebukaera honetan jokatu da finala: **Gabilondo-Txiki, Albisua-Altuna** eta **Javi eta Santi** bikoteetatik bi Hernanin jokatu den Gipuzkoako finalean izango dira.



Argazkian, Gorka Larrañaga, Jose Maria Unamuno eta Patxi Puertas.

Goierri

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34



Zapatu goizeko sukarra

22 ikasle ari dira **JARDUNeko Kultur Taldeak** antolatutako dantza ikastaroa parte hartzen. **Jesus eta Lolin** zornotzarren eskutik, abendura bitarteko larunbat goizetan, Ipintza Institutuan, tangoa, rock & rolla eta runba lantzen saiatuko dira.



Batek daki, baina behar bada ikastaroan ari diren lagunak, John Travoltak 70eko hamarkada amaieran modan jarri zituen gorputz mugimenduak egiten ikusiko ditugu aurrerantzean herriko tabernetan. Kontuak-kontu, eta argazkian ikus daitekeenez, estiloa behintzat ez zaie falta eta, gainera, primeran pasatzen dutela esan digute. Zapatu goizetan ohean geratu beharrean, izerditxo batzuk botatzea ez da plan txarra....

Zertan dihardute ba?



Dorleta Mendibil

Leioako Arte Ederretako Fakultatean lizentziatutako 24 urteko bergarra JARDUNeko Emakume Taldeak antolatutako eskulan ikastaroa ematen ari da Kartzela Zaharrean. Dorletak 15 emakumez osatutako talde bati ematen dizkio klaseak astearte eta ostegunetan, ordu t'erdiz. Bere hitzetan, *"egurra, burdina, igeltsua, eztainua... etab.ekin lanak egiten ditugu eta emakumeek interes baundia azaldu dute leben egunetik. Gainera, batzuk lebedik bonelako lanak eginak dituzte eta alde borretatik abantaila bat da"*. Eskulan ikastaroa azaroaren 3an hasi zen era hemendik hiru hilabetera amaituko da.

Maxim's
☎ 76 20 61

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketa
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZTA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde


Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K

Ion Errasti

Nork ez du ezagutzen? Kanean gora eta behera dabilela guztiok izan dugu berarekin berba egiteko aukera. Praka motzak eta biserarekin bere benetako adina ezkututzen ari dela dirudi, baina Jon Errastik 32 urte ditu dagoeneko eta Gurea tailerretan lan egiten du.

- Zein lan egiten duzu?
- Kartoei kola eman.
- Lanarekin gustora?
- Bai.
- Bizitzako gauzarik onena?
- Musika.
- Zein talde?
- Miguel Bosé, Los del Rio eta sevillanak.
- Dantzan egiten duzu?
- Bai.
- Lo, zenbat ordu?
- Zortzi bat.
- Eta gosaltzeko, zer?
- Cola-Cao.
- Astebukaeran zer egiten duzu?
- Deskantsatu.
- Mendizalea zara?



"Gustora nago lanean eta astebukaeran deskantsatzea gustatzen zait. Musika da munduko gauzarik onena eta dantzan egiten dut noizean behin. Praka luzeak bakarrik hotza egiten duenean erabiltzen ditut"

- Ez, kantsatu egiten naiz.
- Astekó egunik onena?
- Igandea.
- Praka motzak ala luzeak?
- Luzeak hotza egiten duenean.
- Zenbat bisera daukazu?
- Lau. Gatoradena Fignonek eman zidan.
- Poltsikoan zenbat diru?
- 300 pezeta, bokadiloa eta lata bat erosteko.
- Telebista programa bat?
- El coche fantástico, Vigilantes de la playa eta El equipo A.
- Eta lehiaketa bat?
- El juego de la Oca.
- Fime bat?
- Robocop.
- Gimnasioan zer egiten duzu?
- Saskibaloian jokatu.
- Egin dizuten azken oparia?
- Bartzelonaren galtzerdiak.
- Zein kirolari gustatzen zaizkizu?
- Antonio Martin eta Sabonnis. Eta Cruyff aita eta semea. Eta pelotarien artean Errasti.
- Barcelona ala Real?
- Barcelona. Eta Deportivo eta Pontevedra ere bai.
- Pontevedra?
- Oporrak Galizian pasa nituen.
- Janari bat?
- Pulpoa eta enpanadak.
- Eta edari bat?
- Pepsi-max.

LASCAR ALMAZENAK, S.L.

- Kalefazioentzako gasoleoa (etxera eramaten dugu).
- Zibro Plus erregaia, kerosenozko era guztietako estufentzako.
- Michelin markako eta beste marka batzuetako neumatikoak (montatzea eta ekilibratzea doan)
- Repsol olioak. Ibilgailu guztientzako aldaketak (Berrikusketak eta betetzeak)

ESKA ITZAZU PREZIOAK. ANTZEMANGO DUZU DIFERENTZIA!!

**NEGUKO
KANPAINA**

Amilaga, 32
☎ 76 10 38
☎ 76 19 11
BERGARA

BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR



Maria Rosario Larrañaga

Maria Rosario Larrañagak jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzuna: **Etxebarrieta gainekoa**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Maria Rosario Larrañagari** eman dizkiogu.
Zorionak!!

Bergarako zein kaletan aurki dezakegu Errenazimendu garaiko (XVI. mendea) ateondo Plateresko hau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ETXEBIZITZA

Amueblatu gabeko **pisua** alokatuko nuke. ☎ 76 34 48 (Yolanda).

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 50 05 (Josune).

Etxea alokatzen da Martokuan. ☎ 76 14 60.

Pisua alokatzen da Matxiategin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua alokatzen Zubiaurren. ☎ 76 13 85.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Pisua salgai Zabalotegiko Torrean. ☎ 76 33 19.

Pisua salgai San Migel kalean. ☎ 76 02 13 (goizez).

Pisua alokatzen da Irizar ibilbidean. ☎ 76 21 28.

Garajea saltzen da Ibargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Ford Fiesta Ghia SS-T salgai. ☎ 76 15 40/16 18.

Bainerarako hidromasaje aparailu, lehorgailu eta beste osagaiak. 90.000 pezeta. ☎ 76 53 90.

Karro-denda ia berria salgai. Prezio onean. ☎ 76 41 21.

Ski pare bat salgai (9-12 urtekoentzako). ☎ 76 16 92.

ESP Horizon bajoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault Express diesel kotxea salgai (berri-berria). ☎ 76 50 70.

Zibro estufa salgai (egoera onean). ☎ 76 12 86.

Fagor ur berogailua salgai (150 litrotakoa). Egoera eta prezio onean. ☎ 78 33 09 (Ainhoa).

Neska bat behar dugu Donostian (Egian) pisua osatzeko. ☎ 76 29 91.

Antezko kazadora bat galdu dut. ☎ 76 21 51/75 22 03 (Jokin).

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

BBB 3.eko matematikako klaseak hartuko nituzke etxean. ☎ 76 38 71 (Larraitz).

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Ingeles Filolojian lizentziatua, ingeles klaseak. ☎ 76 26 63.

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Neska batek etxeko lanak egingo lituzke. ☎ 76 53 21.

Matematika eta Zientziatako klaseak ematen dira. ☎ 76 06 50.

Fisika eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

Lokalak garbituko nituzke. ☎ 76 51 76 (Leire).

Matematika klase partikularrak ematen dira. Zubieta 2, 1.goa eskuma (Jesus).

Erizain laguntzaileak zaharrak zainduko lituzke (gauetz ere bai). ☎ 76 47 71.

Aleman klaseak. Tituloduna. ☎ 76 12 77 (Maite).

Matematika finantzieroko klaseak. ☎ 76 05 43.

Zaharrak zaindu, etxeak garbitu, dendaren batean lagundu edo jostunen batekin lan egingo nuke. ☎ 75 24 47.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

OILAGORRA
TABERNA

Barrenkale, 21 BERGARA



ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

LONBIDE
OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA


Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Jokin Etxanizek larunbatean egingo du berragerpena Bergaran

Eskuetan zuen lesioa ia sendatuta duela eta, larunbat honetan Bergarako Udal Pelotalekuan jokatu du Jokin Etxaniz aurrelari bergararrak.



Urte txarra pasa duen arren, kantxetan da berriz ere Etxaniz.

Etxanizek orain dela bi aste ekin zion berriz ere kantxetan jokatzeari. *"Ia urtebete eman dut eskuetako lesioarekin. Eskumakoa izan zen lehenengo eta ezkerrekoa ondoren. Eskuko tendoi bat kubritzen duen geruza haundituta nuen eta borrek eragiten zidan mina, baina dagoeneko bi partidu jokatu ditut azken haste hauetan eta ia sendatuta daukatela uste dut"* esan digu pelotari bergararrak.

Etxanizek zapatu ho-

netan jokatu du Lasa III. arekin batera Udal Pelotalekuan, udaz geroztik Bergaran jokatzeko duen lehen partidua. Bere as-

moa hilabete barru hasiko den eskuzbinakako txapelketan sartzea da: *"Iaz kanpoan geratu nintzen eta oso gogorra izan zen niretzat. Aurtent, ordea, abaleginak egingo ditut txapelketarako prest egoteko. Niri Zezeagarekin batera irtetzea gustatuko litzaidake, baina entzun ditudan zurrumurruen arabera Jose Marik Unanuekin osatuko du bikote, enpresak txapoelketa lortu nahi du eta"*. Duda barik, uberarrak eta añaogarrak osatuko duten bikotea txapelketako gogorrenetarikoa izango dela. Suertea bergararrei.

HOBERA EGIN DU ASIER ALBERDIREN OSASUN EGOERAK

Mendi istripua izan zuen Asier Alberdi bergararrak ingresaturik jarraitzen du Lleidako Arnau Ospitalean. Asteaz zehar familiarren eta lagunaren bisita izan du eta printzipioz ondo erreakzionatu du anestesiatik esnatzerakoan. Datozen egunotan medikuek azterketa sakona egingo diote Asierri.

LAU HILABETE GELDIRIK

Xabier Lazkano Bergara K.E. ko futbol jokalaria belauneko ebakuntza jasan zuen asteazkenean Donostiako Quiron Eritetxean. Eduardo Escobar Realeko medikuak operatu zuen eta Xabi Lazkano gutxienez lau hilabete egon beharko da jokatzeko.

KIROL KARTELDEGIA

► Futbola


Bergara-Euskalduna
Lehen erregionala.
Larunbata, 15.45. Ipintza.
Bergara-Idiazabal
Lehen mailako kadeteak.
Igandea, 11.30. Ipintza.
Bergara-Eibartarrak
2. mailako kadeteak.
Larunbata, 10.00. Ipintza.

► Eskubaloia

Bergara-Ereintza
Kadete neska.
Larunbata, 16.10.
Bergara-Ereintza
Jubenil neska.
Larunbata, 17.30.
Biak Kiroldegian.

► Pelota

AFIZIONATUAK
Bergara-San Esteban
Juniorrak, banaka.
Bergara-Burumendi
Juniorrak, binaka.
Ostirala, 22.00.
Udal Pelotalekuan.
PROFESIONALAK
Ansotegi eta Balerdi / Goñi eta Oregi
Etxaniz eta Lasa III / Lejardi eta Tolosa
Larunbata, 16.30.
Udal Pelotalekua.



**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

Iban Rodriguez

Clio 16 balbuletako Espainiako Txapelduna

Iban Rodriguez kotxe gidariak "Copa Clio 16 v." eskuratu zuen igandean. Hurrengo denboraldirako "Supercopa ZX" txapelketarako saltoa gertatzen duen bitartean bere ametsa aitortu digu: "kotxeetatik bizi ahal izatea".

- 1992an "Copa Clio Iniciación" irabazi ondoren aurten beste aurrerapausu bat eman duzu...

- Bai, ia arazo asko izan nituen 16 balbuletako Clio Txapelketan. Aurten berriz gauzak hobeto joan zaizkit; txapelketa ondo hasi nuen eta amaieran bakarrik izan ditut arazoak. Azken bi probetan lehen postuan joan arren ez dut amaitzerik izan eta pena bat izan da bergarar zaletu asko etorri baitira. Oso ondo portatu dira eta zorionez azkenean txapela lortu dut.

- Azken proba polemikoa izan omen zen.

- Leonardo Saban gidariaren lagunekin tirabirak izan nituen. Beti konpondu naiz ondo Leonardorekin baina igandean nerekin haserretu zen. Berak aukerak zituen hirugarren postua lortzeko baina irabazi egin behar zuen; bigarren zihon irabazteko ia aukerarik gabe eta aurreratzea lortu nuenean aldamentetik eta atzetik jo ninduen. Biak kanpo geratu ginen eta bere lagunak ustez ni izan nintzen

erruduna. Ni jotera etorri ziren baina azkenean ez zen ezer gertatu, era guztietako zurrumuruak entzun ditudan arren. Ni geldi geratu nintzen bestela lizentzia galtzeko arriskua bait nuen. Bali-teke bera santzionatzea horregatik. Dena den, ni ez nago haserre.

- Eta datorren urtean, zer?

- Pablo Irizar, Jon Casais oñatiarra eta ni ekipo berean izango gara, (Martin Egañak ez daki oraindik zer egingo duen). Desguaces Latorre izango da gure patrozi-



Ibanen ametsa kotxeetatik bizi izatea da.

Datorren urtean Pablo Irizar eta Jon Casaisekin ekipo berean arituko naiz Supercopa ZX txapelketan

nadorea eta Jacob Sport preparadore frantziarrekin jarraituko dugu. Asmoak? Hiru lehenengo artean geratzea gustatuko litzaidake baina zaila izango da, Turismoen Espainiako Txapelketan sartzerik izan ez duten Estatuko gidaririk onenak hor egoten baitira.

- Profesionala izateko helbururik?

- Kotxeetatik bizi izatea gustatuko litzaidake: edozein txapelketa korrituz, proba gidari moduan, taldeko zuzendari... horrelako zerbait. Datoren 3 urteak klabeak izango dira; orduan ikusiko da honetatik bizi naitekeen ala ez.

IZKUTUKO KONTUAK

- Zein sari eman dizute?
- 16 balbuletako Clio bat eta 500.000 pezeta.
- Zirkuituko lagunik onenak?
- Mekanikoak, dudarik gabe.
- Hobby bat kotxez aparte?
- Eskiatzea.
- Zure idoloa?
- Ayrton Senna.
- Hill ala Schumacher?
- Schumacher. Baina oraingo gidariak kontserbadoreagoak dira.
- Estatuko gidari bat?
- Carlos Sainz.
- Zein rally korrituko zenuke?
- Montecarlokoa, elurra eta asfaltoa tartekatzen direlako.
- Zirkuitu bat?
- Jerezkoa, azkarrena delako.



Lehen maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	A m u l t z o a
1. Madura	12	7	5	2	0	32	15	
2. Errotagain	11	6	5	1	0	43	23	
3. Angiozar	11	7	5	1	1	29	19	
4. Mongatxurra	9	6	4	1	1	33	14	
5. Bar Canalejas	7	6	3	1	2	23	17	
6. OH Zerezos	6	7	3	0	4	25	34	
7. Etxagi	4	7	2	0	5	34	36	
8. Ogizun	3	6	1	1	4	17	28	
9. Uve Bikoitza	3	7	1	1	5	21	32	
10. Guadalest	0	7	0	0	7	12	51	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	B m u l t z o a
1. Kabia	9	7	4	1	2	39	14	
2. Ozaeta	9	7	4	1	2	26	13	
3. Arloteak	8	6	4	0	2	17	12	
4. Bildurbarek	8	6	4	0	2	19	16	
5. Usoa	6	7	2	2	3	18	18	
6. Ufala	6	7	2	2	3	18	20	
7. Pagomendi	6	6	3	0	3	19	24	
8. Kayak	6	7	2	2	3	16	29	
9. Arkupe	6	7	3	0	4	20	39	
10. Revienta	2	6	1	0	5	8	15	

Bigarren maila

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	C m u l t z o a
1. Nahikari Hooll.	12	7	6	0	1	16	8	
2. Kriterium	9	6	4	1	1	16	11	
3. A Ze Flaxa	8	6	4	1	1	26	12	
4. Krai	8	6	3	2	1	15	7	
5. Nekrofilikos	6	6	2	2	2	13	17	
6. Constr. Bergara	5	7	2	1	4	17	24	
7. Txipiron	4	5	1	2	2	10	11	
8. Paok San Juan	1	6	1	1	4	13	29	
9. Kriston P.	0	7	0	0	7	0	7	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	D m u l t z o a
1. Etxenagusia	12	6	6	0	0	54	11	
2. Amozkibar	10	7	5	0	2	21	17	
3. La Juve	7	6	3	1	2	23	18	
4. EH Biterrak	7	6	3	1	2	15	21	
5. Aldoka Maldoka	5	6	2	1	3	16	17	
6. Iganekoak	5	6	2	1	3	18	19	
7. Shaktale	5	7	2	1	4	26	30	
8. Labegaraieta	5	6	2	1	3	19	29	
9. Los Txupeta	0	6	0	0	6	13	43	

TALDEA	Punt.	J	I	B	G	G. Alde	G. Aurr.	E m u l t z o a
1. Soropotroak	13	7	6	1	0	40	13	
2. Hartu Zamak	10	6	5	0	1	31	14	
3. Eri	8	6	4	0	2	23	18	
4. Ezinleike	6	6	3	0	3	24	23	
5. Pikapiedras	6	7	2	2	3	19	24	
6. Ari Ari	4	5	2	0	3	20	21	
7. Kirolzaleak	4	5	2	0	3	11	18	
8. Pata Negra	1	4	0	1	3	7	19	
9. Patxaran Team	0	6	0	0	6	12	37	

emaitzak

Ogizun-Madura	1-5
Errotagain-Mongatx.	6-3
Uve Bik.-Guadalest	6-3
Angiozr-Etxagi	7-2
OH Zerezos-Canalejas .	4-3

Kayak-Revienta	3-1
Usoa-Bildurbarek	3-4
Arloteak-Arkupe	3-2
Ozaeta-Pagomendi	8-2
Ufala-Kabia	4-1

Kriterium-Nahikari	2-4
C. Bergara-Txipiron	4-4
Paok-A Ze Flaxa	4-11

Amozk.-Los Txupeta	2-1
Iganekoak-Aldoka	3-3
EH Biterrak-La Juve	4-1
Etxenagusia-Shaktale ..	10-3

Eri-Pata Negra	4-2
Pikapiedras-Hartu Z.	0-1
Kirolzaleak-Ari Ari	2-4
Patxaran T.-Soropotr. ..	3-8

partiduak

LARUNBATA Barruan

9.00: La Juve-Iganekoak
(Nekrofilikos)
10.00: A Ze Flaxa-Nekrofilikos
(Amozkibar)
11.00: Labegaraieta-Amozkibar
(A Ze Flaxa)

Kanpoan

9.00: Guadalest-Ogizun
(Etxagi)
10.00: Etxagi-Uve Bikoitza
(Guadalest)

IGANDEA Barruan

9.00: Txipiron-Paok San Juan
(Kirolzaleak)
10.00: Kirolzaleak-Hartu Zamak
(Etxenagusia)
11.00: Aldoka-Etxenagusia
(Los Txupeta)
12.00: Los Txupeta-EH Biterrak
(Kriterium)
13.00: Krai-Kriterium
(EH Biterrak)
16.00: Arkupe-Kayak Os Jard.
(Arloteak)
17.00: Bildurbarek-Arloteak
(Kayak Os Jardineriros)
18.00: Ari Ari-Eri
(Ezinleike)
19.00: Ezinleike-Pikapiedras
(Pata Negra)
20.00: Pata Negra-Patxaran T.
(Pikapiedras)

Kanpoan

9.00: Ozaeta-Kabia
(Pagomendi)
10.00: Pagomendi-Usoa
(Errotagain)
11.00: Errotagain-Madura
(Bar Canalejas)
12.00: Bar Canalejas-Angiozar
(Mongatxurra)
13.00: Mongatx.-OH Zerezos
(Angiozar)

OHARRA:

Parentesi artean partiduak arbitratu behar dituzten taldeen izenak.



Bergarako lagun koadrila. 1954

Imajinatzen al dituzue BBBko 2. mailako ikasleak halako traje eta ileekin. Egia da bai hauek ez zebiltzala ez Institutuan eta ez Elementalean, ordurako lanean zihardutela.

Argazkian agertzen direnok 16 urte inguru zituzten garai hartan baina bistan da itxura batera ez dutela gaurko 16 urtekoen antz haundirik. Jakina, ez dira alperrik pasa 40 urte ordu ezker.

Ezkerretik eskumara, aurrean makurtuta: Fermin Aretxaga, Jesus Kalboetxeaga, Jose Ramon Madinabeitia, Anjel Alberdi "Elosu" eta Juanito Alkorta.

Atzean: Jabier Rementeria, Jose Antonio Agirre, Nartxi Begiristain, Isidro Etxaniz (?), Jesus Txurruka eta Manolo Askasibar.

Estepan Plazaola
Argazkia: Jose Ramon Madinabeitia

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

Usoa Pub



☎ 76 38 57
Irala, 1

ZUBIETA


elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ALZAS ELEKTRAGINTZA

**Korronte alterno
eta zuzeneko
makina
elektrikoen eta
abiada haundiko
induzituen
konponketa eta
bobinaketa**



Antigua auzoa, 3 ☎ (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA

LILURA Edertze-Institutua



**MAKILAJE IKASTARO
TRINKOA INTEGREEko
ESPEZIALISTEK
EMANA**

Ikas itzazu **LILURA
Edertze-Institutuaren**
eskutik makilajearen trikimailu
guztiak. Masajista profesional
batek emandako automakilaje
ikastaroa.

Hurrengo saioa:
azaroaren 23an
Gorde ezazu tokia!!

Plaza mugatuak

Informazio gehiago: **LILURA. Bidekurtzeta kalea, 7 ☎ 76 31 71**

uff!
ALTZARI MERKEAK
goian bildu ditu



centro
hogar
MUEBLE

garantiaz



**Amuebladora
Mondragonesa**

sartzen dena:
zeuk behar dituzun altzariak

ARRASATEKO BARIANTEA